

SANTA TERESAREN KONBERTSIOA ETA ONDORENGO IKUSKARI BATZUK

Kristau izatea Kristo Jesusekin bizitzea da. Bera gure bide lagun dogula, bere pentsaera gure pentsaera, bere sentimenduak gure sentimendu, bere maitasuna gure maitasun, bere askatasuna gure askatasun, bere parkamena gure parkamen, bere otoitza gure otoitz, bere arnasa gure arnasa, bere santutasuna gure santutasun bihurtuz. Eta hori ez aldi baten, bizitza guztian baino. “Jauna bilatu egin behar da aurkitzeko eta aurkitu ondoren jarraitu bilatzen” dino San Agustinek. Jauna gure bihotza baino sakonagoa dalako, gure adimena baino argiagoa, gure maitasuna baino maitagarriagoa.

Beti daukagu Jauna deika berarekin bizi eta bide lagun izateko. Batzuetan ez-entzun egiten deitsagu. Beste batzuetan, hunkituta geratzen gara bere deia entzutean. Eta Jaunari jarraitzeko gogo bizia sortzen jaku gure barnean. Holako erabaki ederrak hartzen diran momentuak markatuta izten dabe norbere bizitza. Konbertsio egun zoragarriak ditugu eurok. Santa Teresaren bizitzan ere asko dira halako konbertsio momentu interesgarriak. Merezi dau horreetariko une batzuk aipatzea.

Aurreko artikuluan ikusi genduaneez, Santa Teresak 28 urte-tik ia 40 bitarteko urteetan, hala-holako lekaima bizitza eroan eban. Kontuan hartzekoak dira bere berbak: “Bizimodu oso neketsua nuen, otoitzean argi-ago ikusten baintuen neure hutsegiteak. Alde batetik Jainkoak dei egiten zidan; bestetik, nik munduari jarraitzen nion. Jainkoaren gauzek poz handia

ematen zidaten; mundukoek lotua nindukaten. Bi aurkari hauek batera ekarri nahi nituela dirudi –bata bestearentzat hain arerio zirenak– espiritu-bizitza batetik eta poz-atsegin eta denbora-pasa sentsualak bestetik.

Honela igaro nituen urte asko, eta harriturik nago nola su-fritu zituen izaki honek bata edo bestea alde batera utzi gabe” (7, 17).

“Jesu Kristo zauriz beterik”

Nahiz eta Teresa hain ilunpean izan, Jaunaren argiaren zirrara sentitzen dau bihotz barnean. Guztiz aldatuta geratzen da. Konbertsio eguna deritxo berak ikuskari zoragarri horri. 39 urte beteta eukazan eta garizuman sartuta, eragin ederra izango dau Kristo zauriz beterikoa ikusteak. Ahaztu ezinezko zirkin eragingo dauan momentua Teresaren bizitzan!

Teresaren berbak: “Nire arima nekatua zen ordu ezkerro eta, nahi zuen arren, ez zioten uzten atsedean hartzen berak zituena ohitura kaskarrek. Behin gertatu zitzaidan, otoiztegiaren sartzerakoan, etxean egin ohi zen jai baterako bilatu eta han gordetzeko ekarri zuten irudi bat ikustea. Kristorena zen, zauriz betea eta hain deboziozkoa, non, hari begiratu, guztiz nahi bainintzen hala ikusirik, ongi agertzen zuelako gugatik igaro zuena. Hainbesteraino sentitu nuen zauri haiei eman nien esker gaiztoa, non bihotza erdi bi egiten zitzaidala baitzirudien, eta haren aurrean ahuspeztu nintzen malkotan urtua, behin-behingo z senda nintzala eskatuz, gehiago iraindu ez nezan.

Uste ziorra dut on egin zidala, harrezkerro asko hobetuz nindoalako” (9, 1).

Esperientzia eder honen ondoren, San Agustinen “Aitorki-zunak” irakurriko ditu. Oso gustura eta probetxuz irakurri ere. Alde batetik Agustin ere pekataria izan zalako bera bezala eta



bestetik Agustinek ere entzun ebalako baratzean Jaunaren ahotsa. Hemen Teresak dinoana : “San Agustinen aitorkizunak eman zizkidaten garai honetan; badirudi Jaunak agindu zuela, nik ez baintuen bilatu ezta egundo ikusi ere. Ni San Agustinen oso zalea naiz, moja sartu baino lehen bizi izan nintzen monasterioa haren Ordenakoa zelako eta baita bekataria izan zelako ere; izan ere, bekatari izan ondoren Jaunak berriro Beragana ekarri zituen santuengan nik poz handia aurkitzen nuen eta iruditzen zitaidan haiengan laguntza aurkituko nuela eta Jaunak haiei barkatu zenez, niri ere barka ziezadakeela; gauza batek atsekabetzen ninduen soilik, esan dudanez: haiei behin bakarrik dei egin zuela Jaunak eta ez zirela berriro eror-

tzen; niri, ordea, hainbeste bider dei egiten zidan, horrek nekatzen ninduen. Hala eta guztiz ere, Hark zidan maitasuna go-goan izanik, berriro berotzen zitzaidan bihotza eta sekula ere ez nuen galdu konfiantza haren errukian. Neure buruagan, berriz, askotan” (9, 7).

“Jesu Kristo Maiestate handiz”

Kristo Jesus zauriz beterikoaren ikuskaria izanda urtebetera, San Paulo Apostoluaren jai egunean, Jesus biztuaren ikuskaria biziko dau Teresak. Berarentzat Jesus Kurutzeratua, Jesus biztua da. Eta Jesus biztua, Jesus Kurutzeratua. Ez ditu bi esperientzia honeek banatzen, ezta nahastu ere. Bata bestearren erraieran bizi ditu eta. Oso interesgarria Jesu Kristo biztuaren ikuskaria!. Ze ederto azaltzen dabean Teresak bere esperientzia harrigarriak. Daukanak badaki zelakoak diran Jaunaren ikuskariak eta ez daukagunok esker onez eta apaltasunez mirestu besterik ez dago gure eskuetan. “Badakit –esango dau Teresak– esperientzia duenak ulertuko duela eta ikusiko duela asmatu dudala zerbait esaten; esperientziarik ez duenak ez naiz batere harritzen guztia zentzugabekotzat jotzen badu. Nahiko da nik esatea errugabe geratzeko; nik ere ez diot errurik egotziko esaten duenari” (26, 6).

Kristo Jesus biztuaren ikuskaria honela kontatzen deusku Teresak: “San Pauloren egun batez, mezatan nintzela, Kristoren Gizatasun guztiz santu hau osorik agertu zitzaidan, berpizturik pintatzen den bezala, guztiz eder eta maiestate handiz (...). Hau esango dut bakarrik: zeruan begiak gozatzeko gorputz aintzatsua baino besterik ez balego ere, aintza handi handia dela, batez ere Jesu Kristo gure Jaunaren Gizatasuna ikustea, baita Haren Maiestatea hemen gure miseriak jasan dezakeen neurrian agertzen denean ere; zer izango ote da ondatsun horretaz bete-betea gozaten denean?”

(...) Jaunak niri mesede hau egiteko eta egia hau agertze-ko presa harturik, laster batean kendu zitzaidan neure irudi-pena zelako zalantza, eta harrezkero argi-argi ikusten dut neure inozokeria; izan ere, hain gauza ederra irudikatu nahian urte luzeetan jardungo banu ere, ezingo nuke irudikatu ezta ez nuke jakingo nola irudikatu, irudimenak hemen landu dezakeena baino goragokoa delako, baita zurtasun eta distira bera ere.

Ez da lausotzen duen distira, zurtasun leun eta goisurizko distira baizik, bistari atsegin handi-handia ematen diona eta nekatzen ez duena, ezta ez du nekatzen hain jainkozkoa den edertasun hau ikusteko ikusten den argitasunak ere. Hemengo argietatik erabat desberdina izanik, ikusten dugun eguzkiaren argiak hain distirarik gabea dirudi begien aurrean agertzen zaigun argi harekin konparatuz, non, haren ondoren, begiak irekitzeko gogorik ere ez baita izaten. Kristalaren gainean korritzen duen eta eguzkiak bertan dir-dir egiten duen ur gardena bezala da, zeru guztiz lainotsuan eta lur gainean korritzen duen ur oso arrearekin konparatuz. Ez eguzkia irudikatzen delako, ezta argia eguzkiarena bezalakoa delako ere; azken batean, berezko argia dirudi, beste honek, berriz, gauza artifiziala. Gaurik ez duen argia da, beti argi dagoenez gero, ezerk asaldatzen ez duena. Laburbilduz, pertsona batek adimenik argiena balu ere, bere bizitzako egun guztietan nolakoa den ezin asmatu duen erakoa da. Eta Jainkoak hain bat-batean jartzen du begien aurrean, non ez bailitzateke begiak irekitzerik ere izango, haiek ireki beharra balego; baina berdin da irekirik nahiz itxirik edukitzea, Jaunak nahi duenean; nahi ez badugu ere, ikusi egiten baita. Ez dago nahikoa den oharkabetzerik, ez dago eragozteko ahalmenik, ezta hartarako nahikoa den ahalegin ez ardurarik ere. Hau nik neugan ongi ikusita daukat. Nik orain esan nahi nukeena da Jauna nola agertzen den ikuskari hauetan.

Nik esan nahi nukeena da, Jauna nola agertzen den ikuskari hauetan” (28, 3- 6):

“Jesu Kristo nire ondoan”

Berrogeita bost urte eukazala beste barneko esperientzia eder bat izango dau Teresak. San Pedro egunean izan eban ikuskaria. Jesu Kristo bere lagun eta adiskide bezala sentitzen dau. Horrela guztiz ziurtatuta geratuko da Teresa Kristo Jesusek egiten eutsozan hizketakin.

“San Pedro aintzatsuaren egun batean –idazten dau Teresak–, otoitzean ari nintzela, neure ondoan ikusi nuen edo sentitu nuen, hobeki esateko, ez gorputzeko begiez eta ez arimakoez ez bainuen ezer ikusi, baina iruditu zitzaidan Kristo zegoela nire ondoan eta ikusten nuen Bera zela hitz egiten zidana, nire ustez. Ni guztiz ezjakinean nengoen halako ikuskaririk izan zitekeenik-eta, beldur-ikarak hartu ninduen hasieran, eta negar eta negar besterik ez nuen egiten, ziurtatzeko niri hitz bakar bat esaterakoan, beti bezala geratzen banintzen ere: lasai eta atseginez, eta inolako beldurrik gabe. Iruditzen zitzaidan Jesu Kristo nire ondoan zebilela beti, eta, irudizko ikuskaria ez zenez gero, ez nuen ikusten zer forma zuen; baina argi sentitzen nuen eskuinaldean zegoela beti, eta nik egiten nuen guztiaren lekuko zela, eta neure baitan pixka bat biltzen nintzenetan edota arreta oso galdurik ez nuenetan, ezin nuen nire ondoan zela sentitu gabe geratu” (27, 2).

“Nik liburu bizia emango dizut”

Teresak umetatik maite ditu liburuak. Irakurle amorratua dogu. Zoritxarrez Fernando Valdés Inkisidore nagusiak hainbat liburu irakurtzea debekatuko ditu. Zerrenda horretan agertuko dira, autore famatuen liburuak ere. Besteak beste, San Juan Avilako, San Frantzisko Borja, Bartolome Karrantza, Fr. Luis de Granada eta abarren obrak. Teresa penaz josita

aurkitzen da. Latinezko liburuak izan ezik beste gehienak debekatuta dagozalako. Baina Jesusek urtenbide bat emongo deutso.

“Erromantzeko liburu asko kendu zirenean, irakur ez zitezten, nik biziki sentitu nuen, haietako batzuk irakurtzeak atsegin ematen zidalako eta nik ezin nuen jada, latinezkoak utzi zituelako; Jaunak esan zidan: *ez penarik izan, Nik liburu bizia emango dizut-eta*. Nik ezin nuen ulertu zergatik esan zitzaidan hau, oraindik ez bainuen izaten ikuskaririk. Geroago, handik oso egun gutxira ulertu nuen ongi; izan ere, hain gauza ugari izanik gogoeta egiteko eta aurrean ikusten nuenera neure burua biltzeko, eta Jaunak era askotara ni eskolatzeko hain maitasun handia niri izanik, liburuen behar gutxi nuen edota ia batere ez; Haren Maiestatea izan da egiak ikusi ditudan benetako liburua. Bedeinkatua izan bedi halako liburua, zer irakurri eta zer egin ahaztu ezin den eran grabaturik uzten duena! Nor da, Jauna zauriz beterik eta jazarpenez nahigabaturik ikusi, eta haiek besarkatuko eta maitatuko eta desiratuko ez dituenik? Nor da, Bera zerbitzatzen dutenei ematen dien aintzaren zer bait ikusi, eta egin eta sufri daitekeen guztia eze-reza dela ezagutuko ez duenik, halako saria itxaroten dugunez gero? Nor da, kondenatuak eramaten dituzten oinazeak ikusi, eta, haiekin konparatuz, hemengo oinazeak atsegintzat ez dituenik, eta Jaunari dioten zorra ezagutuko ez dutenik, toki hartatik hainbeste aldiz atera dituelako?” (26, 5).

Dardoaren grazia

Teresak makina bat ikuskari izan ebazan bere bizitzan Jau-nagandik. Horreetariko batzuk ikusi doguz. Bada bere bizitzan beste grazia berezi bat ere. Oso ezaguna. Aingeru batek gezi gori batekin bihotza zulatu eutsanekoa. Gertakari hau bali-teke margolarientzat eta irudigileentzat gustukoena eta begikoena izatea. Esaterako, besteak beste, Erroman, Santa Ma-

ria de la Victoria eleizan aurkitzen dan Santa Teresaren eskultura famatua, Lorenzo Berninik egindakoa.

Aparteko gertakari mistiko hau, Teresak honela kontatzen deusku: “Orain dela gutxi hasi zen Haren Maiestatea, niri aginduta zeukanez, argiago erakusten bera zela, nigan haziz Jainkoaganako maitasun hain handia, non ez bainekien nork ipintzen zidan, oso naturaz gaindikoa zelako, eta nik ez nuelako ahaleginik egin hura lortzeko. Jainkoa ikusteko irrika biziak, neure burua hiltzen ikusi nuen, eta ez nekien non bilatu bizitza hau heriotzaren bidez ez bazen. Maitasun honen bultzada indartsuak pizten zitzaizkidan, eta beste batean esanda ditudan bezain ezin sufrituzkoak eta hain balioetsuak ez baziren ere, nik ez nekien zer egin neure buruaz; izan ere, ez ninduen ezerk asetzen, ezta ez nintzen neure baitan kabitzen ere, eta arima gorputzetik atera egiten zitzaidala zirudien. Oi Jaunaren artifizio gorena! Bai agudezia fina erabiltzen zenuela zeure mirabe ezerezarekin! Nigandik ezkutatu egiten zinen, baina estutu egiten ninduzun zeure maitasunaz, hain heriotza gozoaz, non arimak ez bailuke nahi izango sekula handik irteterik.

(...) Jaunak nahi izan zuen, nik batzuetan ikuskari hau ikus nezala hemen: aingeru bat ikusten nuen neure ondoan ezkerreko alderantz, gorputz itxuran, oso nekez gertatzen zaidana hala ikustea; aingeruak askotan irudikatzen bazaizkit ere, ikusi gabe gertatzen da hori, lehenbizi esan nuen aurreko ikuskariaren antzera. Ikuskari honetan nik honela ikus nezala nahi izan zuen Jaunak: ez zen handia, txikia baizik, oso ederra, aurpegi hain isiotuaz kiskaltzen daudela diruditen goi-hierarkiako aingeruen artekoa ematen zuen. Kerubinak deritzetenak izan behar dute, izenik ez didate esan baina; ikusten dudanez, zeruan aingeru batzuetatik besteetara hainbesteko aldea dago, non ez bainuke esaten jakingo. Eskuetan urrezko gezi luze bat ikusten nion, eta burdinaren muturrean su pixka bat zuela iruditu zitzaidan. Hau behin

eta berriro sastatzen zidala iruditzen zitzaidan bihotzetik eta erraietaraino iristen zitzaidala. Ateratzean, erraiak berarekin eramaten zituelakoan nengoen, eta Jainkoaren maitasun bizi-biziaz guztiz kiskalirik uzten ninduen. Mina hain bizia zelarik, intziri haiek eginarazten zizkidan, eta hain gehiegizkoa zen min bizi-bizi honek jartzen zidan gozotasuna, non ez baitzen kentzea nahi izaterik, eta arima ez zen asebetetzen Jainkoa baino gutxiagorekin. Ez da gorputzeko mina, arimakoa baizik, gorputzak ere hartan pixka bat esku hartu arren, eta batzuetan pixka bat baino gehiago ere bai. Arimaren eta Jainkoaren artean gertatzen den maitasun-solas hain gozoa delarik, nik eskatzen diot haren ontasunari, probatzerara eman diezaiola gezurra diodalakoan dagoenari.

Honek irauten zuen egunetan lelotuta bezala nenbilen. Ez nukeen nahi ez ikusterik, ez hitz egiterik, neure penari lotzea baizik, hura baitzen niretzat sorkari guztietan den aintzarik handiena.

Hau noizbehinka izaten nuen, Jaunak liluramendu hain handiak izan nintzala nahi zuenean, jende artean nengoenean ere ezin bainien kontra egin, eta horrela, nire pena handiz zabaltzen hasi ziren” (29, 8, 13 -14).

Pozaren pozez eta aldi berean dardaraz jarten gaitue Teresaren zerutar esperientzia eder honeek!

A. Olea